

Curriculum eta testuliburua: eduki-azterketarako ikerketa lerroak

Curriculum and textbook: a research line for content analysis

Karmele Perez Urraza eta Begoña Bilbao Bilbao
Euskal Herriko Unibertsitatea

LABURPENA

Eskolan darabilgun testuliburua da curriculumaren benetako zehaztapena. Bertako edukietan gertaera sozialak, kulturalak eta ekonomikoak islatzen dira. Hori horrela, guk Euskal Herria –besteak beste-, nola agertzen den aztertzea hartu dugu helburutzat. Eduki-azterketa deritzogu, mezuaren ezaugarri batzuk sistematikoki eta objektiboki, identifikazio prozesu baten ondorioz, ondorioztatzeko teknikari. Testuliburuaren ideologiaren azterketari ekin nahi badiogu, nahitaezkoa zaigu, edukia izan baita –urte askotan eta, neurri handi batean, gaur egun ere bai-, liburuaren mamia. Izan ere edukia ez da neutrala eta, liburu-egilearen diskurtsoan zehar gertatzen den ezkutuko balioen agerpena egiaztatzeko eduki-azterketaren moduko metodologia konplexuak oso baliotsuak izan daitezke, teknika edo metodo estatistiko gisa. Horregatik, gure ikerketa-lerroan, testuliburuaren testuaren -ikonoaren zein idatzikoaren- edukiari heltzeko eduki-azterketaz baliatu gara.

Hitz gakoak: *testuliburua, curriculum, eduki-azterketa, ikerketa*

ABSTRACT

The real specification of the curriculum is the textbook we use at school. Its contents reflect social, cultural and economic events. Therefore, our aim is to analyse how the Basque Country is presented. We consider that the analysis of the content is the technique of inferring systematically and objectively, through an identification process. It is essential if we wish to undertake the analysis of the ideology, as the basis of the textbook has for many years been –and to a great extent it continues to be- the content. As a matter of fact, the content is not neutral, and complex methodologies such as content analysis to verify the appearance of hidden values in the author's speech are very useful techniques or statistical methods. Therefore, in our research procedure we have made use of the textbook's text –iconic or written- to reach content.

Key words: *textbook, curriculum, content analysis, research*

SARRERA

Ikasgelan erabiltzen diren baliabide didaktikoetatik testuliburua da tradizionalena eta, horregatik, ikuspegi didaktiko, zein teoriko zein ideologikotik begiratuta, baliabide honek artikulatu, liburu, ikerketa eta doktore-tesi ugari sortu du. Testuliburuaren gaineko ikerketa, batez ere, 1960tik aurrera hedatu da Choppin-en esanetan. Edukiaren azterketa harrezkero egiten dela dio, ageriko edukiaren gainean zein ezkutuan geratzen den edukiaren inguruko ikerketa, alegia. Horregatik, curriculuma zein testuliburuetakoa edukia ikergai dira Europako eta Munduko ikerketa guneetan. Horra hor, Alemaniako George Eckert Institut-ak identitatearen eta historiaren arloaz burutu dituenak, Norvegiako Johnsen-enak, Estoniako Tartu-ko unibertsitatekoaren ekarpenak, Frantziako INRP-ren inguruan EMMANUEL egistamoa -Choppin-en zuzendaritzapean-, eta MANES ikergunea, Portugal, Espainia eta Erta eta Hego Ameriketako lanak biltzen dituenak. Ezagunak dira, bestalde, Suedian Selander, Frantziatik Choppin eta Chervel, Espainian Escolano eta Tiana Ferrer, eta Ipar Ameriketako Westbury, Shaver, Fox eta Hess, Anyon, edo Apple, besteak beste, euren lanetan curriculumean –testuliburuetan islatzen den edukiaren bidez-, parametro sozialak, ideologikoak zein identitatearen gainekoak zein leku duten aztertzen baitute.

Badira urte batzuk gai honen inguruan, gure ikasleek –Irakasle Eskolakoak-Euskal Herriari buruz zekarten informazio eskasa eta partzialak kezkatu eta gaiari bueltaka hasi ginela. Zergatiaren bila hasita konturatu ginen edukia lantzerakoan–unibertsitatera heldu aurretik- testuliburuak baduela garrantzia eta horretan aritu gara ikertzen. Gutariko bakoitzak bere ildo partikularra jorratu du ikerketa beraren barruan, hala nola, Begoña Bilbaok kultura erreferenteak oinarritzko hezkuntzako curriculumean, Karmele Perezek zientzia, teknologia eta lanbideen agerpena testuliburuetan, eta Gurutze Ezkurdiak identitatea eta ingurunea curriculumean aztertu ditu. Azken finean, gure xedeetariko bat Euskal Herriari buruz eskolan zein ikastoletan irakasten denak nolako ezagutza erreproduzitzen duen argitzea da.

Hezkuntza-paradigma desberdinetan koka ditzakegun ikerlariek, oro har, testuliburuaren eduki-azterketari berebiziko garrantzia ematen diote, ikerketa zientifikoa oinarrituriko prozedura horren bidez, eta prozedura horrek inplikatzeko dituen erregelen sistematizazioaz eta prozesu metodikoaz inferitzen denagatik -inferentzia horiek, bitartekotzat parte hartzen duten mezua eragortzeko, irakurlegori buruz edo mezuari buruzkoak izan daitezke-. Gure kasuan, elkarkidetzan eginiko hustuketa multidiziplinaren datuak erabiliz, gure ikerkuntza-lerroa talde lanaren emaitza da. Gure datuok jasotzeko datu-tipologia osatuz batera tresna informatizatua ere sortu dugu hustuketa-lana burutzeko eta trataera estatistikoa errazteko. Orain arteko lehenengo pausuan, XX. mendean zehar euskaraz ekoiztutako testuliburuaren ikonografiaren zein testuaren eduki-azterketaren ikerketa-teknika erabiliz gure lagina 70 testuliburuetarara mugatu dugu, euskal irakaskuntzan soziologikoki esanguratsuak izan diren hiru aroen (1. aroa: 1876-1974; 2. aroa: 1975-1991; eta 3. aroa: 1992-2000) arabera. Eurretan guztira 13310 orri irakurri eta 22228 ikono neurtu, kokatu eta deskribatu ditugu edukien hustuketarekin batera. Bigarren pausua ematen hasiak gara, XXI. mendean argitaratu diren gainontzekoak aztertzen dihardugu eta. Ingurunearen Ezaguera deritzon arloa aukeratu dugu aztergai, eta euskaraz argitaratu

dena oinarritzat harturik, Euskal Herriko eskoletako egoerak -bi estatu eta hiru administrazio desberdinen pean dagoen herria garelako- beharturik gazteleraz eta frantsesez ekoiztutako batzuk arakatu arren. Kualitatiboa da proposatzen den metodologia, euskal kulturaren ezaugarriei ematen zaien tratamendua begiratzen den neurrian.

1. IKERKETA LERROAREN EKARPENAK

XVI. mendean Ramus-ek testuliburuak sortu zuenetik, edo Comenius-ek bere *Didaktika Magna* argitaratu zuenetik, nabarmen aldatu da tresna pedagogiko hau. Eskolako lanerako XIX. mendean hartzen dute testuliburuok benetako garrantzia, gaur arte dirauena. Testuliburuak euskaraz argitaratu direnean ere izan dituzte aldaketak, hala edukiz nola itxuraz. Guk XX. mendea hartzen dugu ildotzat, euskaraz argitaratu eta erabili denaren errebaso egiterakoan, hiru epe edo aro finkatzeko. Lehen aroa 1876tik 1974ra bitartekoa da, Foruak galtzen direnekoa eta Eusko Pizkundeari dagokiona. Orduantxe eman ziren, euskaltzaleen ekimenari esker, euskarazko irakaskuntzan eta horretarako liburugintzan beharrezkoak ziren lehenengo pausuak. Bizkaiko Auzo Eskolen esperientzia eta lehenengo Ikastolen sorrera ere sasoi honetan kokatzen dira. Bigarren aroak -1975etik 1991ra doan-, euskarazko irakaskuntzaren goranzko bideaz batera, euskarazko testuliburugintzaren indar hartzea ere badakar. Argitaletxeak sortzen dira, Elkar, Erein eta Ibaizabal, besteak beste, baliabide didaktiko berriak euskaraz sortu eta bultzatuz, eta kanpoko argitaletxeek testuliburuak zein beste material batzuk euskaratzen dituzte, eta lortzen dute ikastolak eta irakaskuntza elebidunak eraikitako merkatuan sartzea. Hirugarren aroa XX. mendeko azken hamarkadan kokatu dugu, zeina baita irakaskuntza elebidunak eta ikastolak sendotu eta argitaletxeek testuliburu berriak plazaratzen dituzten aroa, hain zuzen. Hegoaldean hezkuntza lege berriak testuliburu berriztapena bultzatzen du, eta Iparraldean euskaraz argitaratzen dira *Iguzki Lore* eta bestelako baliabide batzuk. Hurrengo urratsean testuliburuari ekiten diogu, curriculum gaiaz gaur egungo jokatzeko duen eragina eskatuta. Testuliburuetan eduki hautatuak irakasten dira, inork aukeratuak, beraren interes eta nahien arabera, egon ere ez baitago horietatik at aukeratuak, ez dagoen moduan kultura bateko ezaugarrietatik kanpo irakasten jarduterik.

Begoña Bilbaok bere doktore-tesian eta ondorengo argitalpenetan *Kultur erreferenteak oinarritzako hezkuntzako curriculumean Euskal Herriko eskoletan* arakatu ditu. Metodologia kuantitatiboa eta kualitatiboa erabiliz, ikusten da zenbatekoa den euskal erreferentea Euskal Herriko testuliburuetan eta euskal erreferente hori nola gauzatzen den euskara eta euskal kulturaren tratuaren argitaletxeen arabera. Horrekin batera, argitu egiten da gai horiekiko ezkutuko mezuaren izaera. Euskal Herrian erabiltzen diren curriculum ofizialen konparaketa egiten da euskara eta euskal kulturarekiko, maila sinkronikoan zein diakronikoan. Horrela, ikerketa-lerro honen bidez hezkuntza-sistema estatala eta bere baitan gauzatzen den ezagutza hegemonikoa abiapuntutzat harturik, euskal gaiei ematen zaien tratuaren bidez testuliburuak betetzen duen funtzio ideologikoa ikertzen da.

Kultur erreferenteak Oinarritzako Hezkuntzako Curriculumean Euskal Herriko

eskoletan aztertzerakoan -Ingurunearen alorrekoak batik bat-, sasoian sasoiko curriculumaren garapen ofizialak, Iparraldekoak zein Hegoaldekoak alderatu dira eta curriculumaren teorizaziotik abiatuz paradigma kritikoarekin bat eginik, curriculum horren izaera soziala azpimarratzen da, sortzen den gizartearen interes eta baloreen menpekota den neurrian. Eskolak -curriculumaren bidez-, kultura dominatzailea finkarazten duenean eskolako edukietatik kanpo -edo oso gutxitan aipatuta- geratu diren edukiak diskriminatuta utziz.

Euskal Herri osoko testuliburuaren lagina hartuz, Euskal Herrian erabiltzen diren curriculum ofizialen konparaketa egiten du maila sinkronikoan zein diakronikoan Begoña Bilbaok, euskara eta euskal kulturarekiko eskoletan ingurunea ezagutzeko arloaren araketa egingez. Ipar eta Hego Euskal Herrian, XX. mendean ikaslearen inguruneari buruz irakatsi dena jorratzen du, hots, geografia, historia, ingurunearen ezaguera, gizarte arloa, natur arloa, hezkuntza zibikoa... historian zehar izan dituen izendapenen arabera. Finkatutako arloaren barruan, kulturak eta hizkuntzak -euskarak eta euskal kulturak- ikaslearen identitatearen eraikuntzan duten eraginaz, eta hezkuntzak eraikuntza horretan betetzen duen funtzioaz arduratzen da bereziki, curriculumaren alderdi horietan azalduz.

Iratziko mezua eta ikonografikoa irakurrita, euskal kultura ezaugarritzeko erabiltzen diren parametroak mugatu eta hiru multzotan sailkatu dira -paisaiak, gainontzeko ezaugarriak eta hizkuntza-, eta ikusi da ezaugarri horiek joera desberdina dutela; goranzko joera dutenak, paisaiak, kirolak, jaiak eta gastronomia diren bitartean, euskarak, mitologiak, pertsonaiak, musika eta dantzak behera jo dute.

Aipatzekoa da, paisaiari dagokionez, hiri eta herrietako presentzia gero eta handiagoa den arren, paisaia naturala -barnekoa zein kostaldekoa-, gehiagotan agertzen dela. Pertsonaiari buruz, bestalde, azpimarratu behar da gizonezkoak direla gehienak, andrazkoak gizonezkoekin batera, taldean agertzen direla, portzentaje txikian izan arren. Generoari eta adinari begiratuta gizonezko helduarena da pertsonaren estereotiporik erabiliena. Edozelan ere, Euskal Herriaren ikuspegi turistikoa, folklorikoa agertzen dute testuliburuak, nortasunari eta identitateari lotuen dauden ezaugarriak presentzia txikia emanez.

Esan dezakegu, euskal kulturari lotutako edukiak modu desberdinetan testuinguratzen diren arren, gehienak ikuspegi hegemonikotik lantzen direla, ikuspegi soziokulturaletik lantzen direnak oso gutxi direla, Euskal Herrian kokatzen direnak, beherantz doaz eta. Ikuspegi hegemonikoa, estatua zein autonomiatik pasatzen dena, gorantz doa, gero eta finkatuago eta hedatuago agertuz.

Bilbaok ondorioztatzen duena da, Euskal Herriko neska-mutilek -Hegoalde zein Iparraldekoak-, ezin dezaketela testuliburuetan euskararen lurralde osoa errealtate adierazgarritzat jaso. Eurentzat Euskal Herria heteronomia izango da, zerbaiten edo norbaiten parte, ez nortasuna duen entitate. Euskara diglosian kokatuko zaie, baita herri honen kultura guztia ere. Testuliburuetan aipatzen da Euskal Herria, baina izenez ez izanez, egungo edukietan ez baita testuinguru soziokulturala aintzakotzat hartzen. Euskara ez da ehuneko ehunean Euskal Herrian testuinguratzen, sarritan estatuko hizkuntzen artekoa da, edo Erkidegoko mugetan geratzen da. Nafarroa eta Iparraldean estatuko hizkuntza da erreferentzia, ia bakarra.

Euskal Herriaren izaera azalekoena lantzeko joera gero eta handiagoa da, paisaia, jaiak, kirolak eta gastronomia gaiek gora egin dute testuliburuetan, Euskal Herriko tasunetatik orokorrenak.

Ikerketa ildo berean kokatzen da Karmele Perez Urrazak *Zientzia, teknologia eta lanbideen agerpena Euskal Herriko testuliburuetan* izeneko doktore-tesian eta ondorengo lanetan jorratu duena.

Hezkuntza-sistema estatalaren sorreran eta betekizunean gauzatzen den ezagutza legitimoa nola transmititzen den gure eskola-diziplina eta testuliburuaren bitartez azalduz batera, ezagutza legitimo hori nola gauzatzen den azaltzen da, hain zuzen, zientzia, teknika eta ekonomiaren ispilutzat hartzen dena. Euskal Herrian indarrean dauden hezkuntza-sistema estatalen oinarriko zertzelada historikoak agertuz batera, testuliburuaren legeria nola gauzatu den sakontzen du Perezek, legeri horrek testuliburuaren nolakotasuna eta eskola-argialetxeen jokabideak baldintzatzen dituelakoan baikaude. Horrekin batera, euskal irakaskuntzari hurbilketa historikoa eginez, euskal testuliburuaren iraganari eta oraingoari heltzen die, euskal nazionalismoaren egitasmo soziohistorikoetan aurkitzen duelako sorkuntza horren arrazoia, hots, euskal testugintzaren izaera eta bilakaera. Testuliburuaren izaera ideologikoari heltzen dio: batetik, tresna ideologiko gisa ikasle, irakasle eta familiari begira duen eragina aztertuz; bigarrenetik, testuliburuaren ideologiari heltzen dio diskurtsoaren eraikuntzan ikonografiak eta testuak duten garrantzia azpimarratuz.

Elkarkidetzan lan beretik jasotako datuetatik abiatzen delarik, Perezek espeziifikoki lanbidearen deskribatzaileari ematen zaion trataera ikertuko du Euskal Herriko testuliburuetan lana, ekonomia eta zientzia, eta teknikaren garapena nola islatzen den argitzeko asmoz. Garrantzi desberdina ematen zaio testuliburuetan hizkuntzaren arabera eta aroen arabera. Presentzia gehien bigarren aroan ematen zaio beti ere, hiru hizkuntzatan, ordutik hona frantsesez idatzizkoetan agerpena areagotuz.

Lanbidea ingurune fisiko/naturalari, ekonomiko eta historikoari lotua ikusi dugu, batik bat. Ikuspuntu historikotik begiratuta 1. aroko testuliburuetan Aro Modernoan kokatzen dira lanbideen adierazpen erdiak. Bigarren arotik aurrera, berriz, Erdi Aroan. Egungoetan ere, kasu erdiak hor kokatzen dira. Harrigarria da, horregatik, Aro Garaikideari, espreski egiten zaion erreferentzia gutxi. Esan dezakegu, iraganean, kokatzen direla testuliburuetakoko lanbidearen adierazpen gehienak, lautik hiru, behintzat. Lanbidea, lehen aroko testuliburuetan euskal esparru historikoan kokatzen da kasu erdietan, estatalean eta zehaztu gabekoan aipamen nabarmen handiagoaz. Bigarrenean, lanbidea ikuspegi hegemonikoarekin identifikatzen da, edo inon zehaztu gabe geratzen da. Egun lanbidea ez da euskal testuinguru historikoan kokatzen, ingurune estatalean geratzen da, baina lanbidearen benetako tokia zehaztu gabekoaren esparrua da, hau da, inon zehaztu barik. Ia ez dago ekonomia adierazpenik Euskal Herriari lotua. Hala ere, argialetxeek ez dute era berdinean jokatzen deskriptore hauekiko edota lan-munduari loturiko bestekiko.

Behatu duenez, euskaraz ekoiztutako testuliburuaren egoera dikotomikoa da lan munduarekiko: XX. mendearen hasierako testuliburuak Euskal Herriatik Euskal Herriko burutzen dira. Baserri giroan kokatzen dira lanbideak eta nekazal kulturaren birkokatzen dira aurrerapen tekniko eta teknologikoa. Eguneroko beharriaz lotzen

zaizkie lanbideak, prozedura teknikoak, eskulanak, ohiturak, olerkiak, kantikak, zein aurrerapen zientifikoak zein industrialak, baserri giro hori hiritarragoa agertu arren. Euskara euskal kultur biltegia da, balio euskaldunak agertarazten dituena, non herriaren garapena Aberriarenaz identifikatzen den. 1992-2000 bitartean berriz, Frantziako administrazioaren menpe dagoen lurretan curriculo estataletik ekoizten dira eta Espainiako estatuaren menpeko bi administrazioetan bertako Erkidegoetan egokitzen dira testuliburuak. Horrela, ikusi duena da lanbideak Erkidegoetan kokatzen direla eta garapen industrialak haiei zein estatutuari atxikitzen zaiola. Lanbideak eta prozedura asko burokrazian oinarriturik daude, Administrazio eta honen zerbitzuetako lan intelektuala eta eskulanaren arteko bereizketa agertuz. Bi erreferente hegemoniko horien artean ugaritzen hasi da testuinguru nahasia (estatua eta erkidegoaren mugak nahasten dituena), non, euskalduntasunaren balioak ez dira zehatz eta tinko agertzen, bai, horrexegatik, horren ondoan garbi agertzen den eredu hegemonikoarenak. Horregatik, lehen (1876-1991) erro kulturala duen komunitatea aipatzen da eta testuliburuak Euskal Herri osorako ekoizten dira. Orain (1992-2000), berriz, lan-mundua erro politikoa duen Komunitateari lotzen zaio. Lurralde banaketa-politikoa esparru geografikori, sozial zein kulturalari aplikatzen zaio, Euskal Herriaren entitate soziokulturala desagertuz doan bitartean. Horren kariaz, Iparraldean eta Hegoaldean testuliburuak berezituak daude, eta Hegoaldeari dagokionez EAerako (Bizkaia, Gipuzkoa eta Araba) ekoizten dira batzuk eta Nafarroako Foru Komunitaterako beste batzuk.

Gizakiak teknikaren bidez ingurunea -natura, objektuak, materialak...- aldatzen badu bere bizi-kalitateak hobetzeko eta beharrianak asetzeko, esan behar da horiek lantzeko bere teknika eta kultura propioak dituela, bereak; baina teknika eta kultura horiek artisautza eta aurrezientifikoaren mailan agertzen baditugu, herri horren teknologia ukatu egiten da, atzerakoitzat jotz. Teknologia guztia teknika da, baina ez alderantziz, zeren teknologiak ezagutza zientifikoaren garapenari loturiko aurrerakuntza industrialari egiten baitio erreferentzia. Horregatik, lan-munduaren adierazpen gehienak, hots, goi-lanbideak (lan intelektuala zein burokratearena), aurrerapen teknikoa eta teknologikoa, eta zientzialarien agerpena testuinguru hegemonikoan identifikatzen diren bakoitzean, gure herriaren lorpen intelektualak ukatzen dira. Ondorioz, ekonomiarik ez duen herria, hots, produkzio-sistema garatu batek eskatzen dituen zientzia, teknika eta teknologia ez dituen herria, herri atzeratua dela pentsa daiteke. Efektu bera indartzen da Euskal Herriari buruzko aipamen horiek, iraganean soilik kokatzen direnean, hots, esaten denean lehen bazituela baina orain ez.

Eraitza hauek guztiek adierazten digute testuliburuaren izaera ideologikoa. Testuliburuak espazio fisikoa da, hizkuntzaz, kulturaz eta lurraldetasunaz osatua, baita sinbolikoa ere, ikaslearen bizipen pertsonal zein kulturalekin bat egin beharrekoa. Ardatz tridimentsional horretan, desorekaren batek espazio osoaren desoreka dakar. Guk, testuliburuak arakatu ditugunean desoreka horiek aurkitu ditugu, estatua izanik guztien sorburua. Liburuak programa ofizialetara egokitzen da, onespina behar du eta, estatuaren politika eta ideologia agertzen ditu, maila makropolitikoa zein mikropolitikoa. Maila makropolitikotik begiratuta Euskal Herriko testuliburu batzuek joera soziohistorikoan dute sorburua. Gainontzekoek hegemonikoan. Baina, maila makropolitiko horrek eragin zuzena du liburuaren barne-antolaketan eta

diskurtsoaren eraikuntzan. Ikuspegi mikroak adierazten digu testuliburua tolerantzia (oreka) gunea dela, erregulazioaz eraikia, non testuliburuaren onespenezkoak benetako funtzio ideologiko erregulatuak betetzen duen. Horregatik, euskal hezkuntzako merkatu-sarean sarrera duten argitaletxe bakoitzak lanbideen trateran erakusten duten jokabidea ikusirik, ageri da argitaletxeek orokorrean ez dutela beti berdin jokatzeko, ezta ikuspegi bera agertzen aldagai horrekiko. Testuliburua programa ofizialek egokitzen da Hezkuntza Administrazioaren onespenezko estuki loturik, baina argitaletxe batzuek kultura edukia Euskal Herrian bertan kokatzen dituzten bitartean, gainontzeko guztiek testuingurune hegemonikoan kokatzen dituzte. Bi joera nagusitzen dira: joera soziohistorikoak, bere jatorrian edo izaeran uztartu nahi dituz jakintza unibertsalak; hala ere, Euskal Herriko ikaslearen zati txiki batengana baino ez da heltzen –kontuan hartuz: argitaletxe kopurua, erdarazko ekoizpena, testuliburuaren zabalkundea eta, hizkuntzaren araberrako erabilera–. Bigarren joera, berriz, hegemonikoa da -hedatuena eta kanpoko argitaletxeek edo euren filialek ezarritakoa- Estatu-boterearen balore ez-euskaldunak dituz goiburua. Horrela, gertatzen da, batetik, gure eskoletako ikasle euskaldunek testuliburuaren bidez euren identitatearen desjabetze kultural eta intelektual horretan hezten direla, desjabetze horren parean kultura hegemonikoaren balioak goraiatzen direlarik. Bestetik, testuliburuetan nagusitzen den egoera nahasiaren anbiguetatean (batzuetan Euskal Herrian, besteetan Erkidegoan, edo egoera nahasian) euskal eredu finkoa falta da. Horretan galtzaile suertatzen da gure ikaslearen nortasunaren eraikuntza, hots, gure herriaren nortasun kolektiboa.

Ikerketa-lerro honen hirugarren ekarpena Gurutze Ezkurdiaren *Identitatea eta Ingurunea Curriculumean* izeneko doktore-tesi eta ondorengo lanen bidetik datorkigu.

Identitatearen eraikuntzari buruzko hausnarketa egitean, ingurunean eraikitzen den herri-identitatea giza ezaugarri funtsezkotzat hartzen du. Identitatea aldatzen eta moldatzen dugun ibilbidean, gizarte jakin bateko nortasunean kokatzen da. Identitatea modu sozialean eraikitzerakoan bi ingurune desberdin dituz Euskal Herrian: hegemonikoa, nazio politikoarena, eta soziokulturala, nazio etnikoarena. Inguruneak eta identitateak curriculumean eta jakintza-arloen edukien duten isla aztertu du bereziki, eduki horiek ingurune hurbilaren definizioan eta identitatearen eraikuntzan duten eragina jakin ahal izateko. Ezkurdiarentzat garrantzizkoa da Euskal Herriko eskoletan irakasten den edukia gure nortasun soziokulturean oinarritzen den konstatatzea. Horregatik, ikertu dituz geografia eta historia diziplina biltzaileak: geografiaren bidez espazioaren eraiketa kontzeptuala egiten da eta historiaren bidez denboran ematen aldaketaren kontaketa. Bai espazioa zein denbora modu grafikoan lantzen dira testuliburuetan: mapak espazioaren irudikapena egiten duen bitartean, kronogramak denboraren irudikapena bideratzen duelako.

Euskal Herriko itxura fisikoa -paisaiatz gain- ordenatu eta lurralde bezala kontzeptualizatzeko mapa erabiltzen da. Modu honetan mapak espazioa eraikitzerakoan lurraldea definitzen du. Ulertuko dugu, bada, lurraldetasunaren adierazpenean mapak duen esanahia handia duela. Euskal Herriko lurraldea zatikaturik aurkezten da testuliburuetan: gehienetan lurraldearen zati bat baino ez; edo Euskadiko Autonomia Erkidegokoa, edo Nafarroako Foru Elkarteak; bata ala

bestea, inoiz ez elkarrekin, Espainiako mapa autonomikoan izan ezik. Frantziako kasuan, batzuetan Hegoaldekoa aipatzen den arren, Iparraldeko lurraldeak ez dira agertzen.

Euskal Herriko lurraldeen barne antolaketari buruzko edukiak oso desorekatuak dira, Europarekin eta munduarekin dugun harremana ere desorekatua eta urria da testuliburuetan. Europa ofiziala, estatala, ekonomikoa eta ez soziokulturala lantzen da, beti modu estatalean. Europa hori Estatuena da, eta, Estatuak Europari begira daude.

Historia azaltzeko, aldagai desberdinak erabiltzen dira; alde batetik, mezua bideratzen duten argazkia, marrazkia eta eskema kronologikoa; bestetik, mezua antolatzen eta eratzen duten eszenak, gertaerak, monumentuak, pertsonaiak, kronogramak, mapa historikoak, azken horiek gero eta erabiliagoak, bestalde, turismoa eta aisialdiarekin lotuta. Kronogramaren bidez denboraren antolaketa grafikoa egiten da, historiaren ildoak adieraziz. Horiek era askotakoak dira. Iparraldekoak oso zehatzak, gaiaren arabera antolatutakoak eta Frantziarekin lotutakoak beti. Hegoaldeko testuliburuetan ez dira hain zehatzak eta gutxiagotan erabiltzen dira. Dena den, kronogrametan islatzen diren gertaerak denak dira izaera estatalekoak. Euskal Herriko historiari begiratuz gero, izaera soziokulturala oso modu urrian erabiltzen da, juridikoa eta nahasia sarriago. Antzinatea lantzeko eredurik gehienak kanpoko herrietatik hautatuak dira. Gure sasotik urrinen diren aro historikoak zehaztu gabeak dira nagusiki, eta hurbilenen daudenak zehatzenak, estatalak. Historiaurrea zehaztu gabea da, ez da lotzen Euskal Herriarekin: Ekain, Santimamiñe, Isturitz ez daude. Egotekotan Altamira. Zehatzen diren aroak, ordea, modu estatalean zehatzen dira, Estatu-nazioaren historiarenak. Historia Estatuarekin lotuta dator, batez ere gungandik hurbilen dauden aroetako Historia.

Ezkurdiak bere ikerlanetan ondorioztatzen du curriculumean irakasten diren lurraldeak eta historiak nekez islatzen dutela Euskal Herri soziokulturalaren errealitatea, hori Euskal Herria aipatzen denetan. Europa zaharrean identitate politiko-ekonomiko berriak sortzen ari garen honetan, Euskal Herri zahar-moderno honetako hurrek nekez eraiki dezakete euren identitate soziokulturala eta europarra, curriculumean eduki horiek islatzen ez diren bitartean.

Elkar-lanean buruturiko ikerketa-lerro honen bidez lortutako datuek esaten digutena da:

1.- Euskal Herrian, hiru hizkuntzatan, euskaraz, frantsesez eta gaztelaniaz ekoizten diren eskolarako testuliburuak ez direla molde berekoak.

- Frantsesez direnak zehatzak dira, Estatuaren alde beti, eta ez dute Euskal Herriaren berri ematen.
- Gaztelaniazkoak, kanpoko proiektuei erantzunez, Euskal Herria soziokulturala saihestu egiten dute.
- Euskaraz direnen artean, badira euskaraz sortuak eta badira itzuliak ere, hizkuntza itzultzen zaienak, adierazlea euskaraz, baina adierazia erdalduna.

Edozein modutan, Iparraldekoak Frantziari eta Europari begira eraikita daude, eta Hegoaldekoak Espainiari begiratzen diote, ez Europari edo munduari.

2.- Testuliburuetakoko presentzian nortasunari eta identitateari lotuen dauden ezaugarriek behera egin dute, hala hizkuntzak nola pertsonaiak edo lan mundua, lurraldea zein historia.

Horregatik, ikasleari ematen zaion ingurune hurbileko irudia aztertzerakoan, baiezta dezakegu Euskal Herriaren eta euskal kulturaren azaleko agerpena aurkitu dugula. Testuliburuetakoko edukiak Euskal Herriarekin gero eta lotura txikiagoa agertzen dutela.

2. IKERTALDEA FINKATUZ: ARAKA WEBGUNEA

Euskal Herriko euskarazko testuliburuaren inguruko edukia-azterketa lerroari beste bultzada bat emanez 2003. urtean ARAKA izeneko ikertaldea sortu genuen guk hirurok. Bi arrazoik bultzatu gintuzten ARAKA ikertaldea sortzera: hiru tesiak burutzeko metatutako esperientzia, lana eta dokumentu bilduma ugaria zela ikusteak, batetik, eta, bestetik, konstatatzeak Euskal Herrian ez genduela inolako bilgune edo erakunderik bereziki testuliburuetakoz arduratzen zenik.

Eskola testuliburuak arakatzeko ikertaldea sortzerakoan honako irizpideak izan genituen kontuan: batetik, testuliburuaren izaera; bigarrenetik, Euskal Herriko egoera soziokulturalean curriculum ulertzeko joera soziokritikoa, eta azkenik, edozein ikerkuntza baldintzatzen duen ikuspegi sozial, kultural eta estrukturala ez neutrala. Perspektiba horretatik abiatuta burutu dugu Araka ikertaldearen zeregina.

ARAKA ikertaldeak Euskal Herriko Unibertsitatean dihardu lanean, batez ere, eskolatan erabiltzen diren testuliburuak aztertzen ikertalde gisa joera soziokultural eta kritikoa uztartuz. Ikerkuntzaren ikuspuntu soziokritikotik abiatuta 2003. urtean ARAKA ikertaldearen webgunea (<http://www.vc.ehu.es/araka>) argitaratu genuen. Gaur egun EHUko Arabako Campuseko web orriari lotua dagoena, testuliburuaren ikerkuntza aritu nahi diren EHUko zein kanpotako ikerlari edo doktoregaiei eskaini nahi diegu testuliburuaren ikerkuntzaz lehen hurbilketarako tresna izan dadin. Webgune honetan atal asko badira, oraingo honetan bereziki aipatu nahi genituzke honako hauek:

1) *Curriculum* izeneko orria: Euskal Herriko hezkuntza irizpide izanik, batetik, hemengo eskolarako zenbait baliabide pedagogikoen loturak agertzen dira; bestetik, zenbait hezkuntza erakundeari sarbidea eskaintzen dugu; azkenik, curriculum eta euskal gaiak lantzen dituzten aldizkariak aipatzen ditugu, ondoren adierazten dugun eran:

- Eskolarako baliabide pedagogikoak:

- Aholab
- Baliabide Pedagogikoen web gunea - Bordaleko Akademia
- Berritzeguneak:
- Bizkaiko Foru Aldundiaren Kultur Saila
- Center for Basque Studies (Reno)

- Ekoizpen pedagogikoak CRDP/Ikas.CRDP/Ikas-Bi
 - El racó de Clic
 - Elhuyar: Zientzia.net
 - Euskal Herriko musika
 - Euskarazko Software katalogoa
 - FONATARI: euskal fonetikaren ataria
 - Historiarako esteka interesgarriak
 - Ikastetxeetako webguneak
 - Ihauteriak. Materiale bilduma
 - Institute of Basque Studies
 - IRAKASTEN: Euskal Herriko irakasleон foroа
 - IKUSLE (irudien katalogo elektronikoa)
 - LABAYRU ikastegia
 - Le portail des professionnels de l'éducation
 - Mendebalde Kultur Alkartea
 - Nabarralde
 - Nafarroako Foru Gobernuaren Euskara arloko Formakuntzarako Plana
 - REDINET
 - Ulibarri programa
 - o- UZEI (Terminologia eta Lexikografia Zentroа)
- Erakundeak:
- Conseil Général des Pyrénées Atlantiqueseko hezkuntza
 - Conseil Régional d'Aquitaineko hezkuntza
 - CIDREE (Consortium of Institutions for Development and Research in Education in Europe) - Members
 - EHIK - Euskal Herriko Ikastoleen Konfederazioa
 - EIRE - Euskal Irakasleen Elkarteа
 - Euskaltzaindia
 - Euskal Eskola Museoa
 - Euskal Herriko Ikastolen Elkarteak
 - Euskal Herriko Ikasleen Gurasoen Konfederazioa
 - Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Saila
 - Euskal Autonomia Erkidegoko Eskola-Kontseilua
 - Euskal Kultur Erakundeа
 - Eusko Ikaskuntza
 - EUSTAT
 - FREREF - Fondation des Régions Européennes pour la Recherche en Education et en Formation
 - GAINDEGIA
 - IKAS
 - Ikaѕ-Bi
 - ISEI-IVEI, Irakas-Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundeа
 - Ministère Education Nationale Enseignement Supérieur Recherche
 - Nafarroako Foru Komunitateko Eskola Kontseilua
 - Nafarroako Foru Komunitateko Hezkuntza Saila
 - Seaska

- Udalbiltza
- Curriculum eta euskal gaiei buruzko zenbait aldizkari:
 - AJS, American Journal of Sociology
 - AJE, American Journal of Education
 - Contexto Educativo. Revista Digital de Educación y Nuevas Tecnologías
 - Cuadernos de Pedagogía
 - Curriculum Review
 - Euskalingua
 - ENC Online: Curriculum Resources
 - Education Review, A journal of book reviews
 - Heuresis
 - HIK HASI Euskal Heziketarako Aldizkaria
 - Jakin
 - JCEPS, The Journal for Critical Education Policy Studies
 - Journal of Curriculum Studies (JCS)
 - Kikiriki
 - Revista de Estudios del Curriculum (REC)
 - Revista de Psicodidáctica
 - Tantak
 - Uztaro
 - Curriculum, Revista de Teoría, Investigación y Práctica Educativa

2) *Legeria* izeneko orria: Gure ikerketetan ikusi dugunez, curriculum eta testuliburua ezin daitezke bereiztu. Lehenengoa Estatuak kontrolatzen du legearen bidez, zeinaren arabera ezagutza ofiziala arautzen den. Bigarrena, ezagutza ofiziala ezartzeko erabiltzen den tresna da. Testuliburuan lantzen den edukia, argitaletxeek curriculum ofizialetik hautatzen dituzten ezagutzak dira, eskolan derrigorrez landu behar diren gutxienezko irakaspenak, -ikasle guztientzat derrigorrezkoak direnak, bestalde-. Gure webgunean, horregatik, ikerlarien esku jartzen ditugu, batetik, Euskal Herrian indarrean dagoen hezkuntza-lege orokorrak, testuliburugintzaren onespenez arautu dena berezituz, eta gure hizkuntzaren normalizazioari begira arautu dena, bestetik. Horregatik, atal hau honela antolatu dugu:

- Hezkuntza-arautegia:
 - Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-arautegia
 - Ipar Euskal Herriko hezkuntza-arautegia
 - Testu ofizialak euskal irakaskuntzaz (Iparraldea)
 - Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza-arautegia
 - Euskara-arautegia hezkuntzan
 - Enseignement primaire. Langues étrangères et régionales.
 - Inspection Académique des Pyrénées-Atlantiques
- Hezkuntza Curriculum ofizialak:
 - Europako hezkuntza-sistema estatalak
 - Hezkuntza-sistema Ipar Euskal Herrian
 - Hezkuntza-sistema Hego Euskal Herrian

- Lege-testuak
 - Araubidea: lege-testuak
 - CNDP-Informations officiels
 - DOCE (Documentación Educativa y Recursos didácticos)
 - EAEko Hezkuntza Saila
 - LEDA
 - Legislación Educativa
 - Manual de Legislación Educativa. Estatal y autonómica.
- Lege-iturri ofizialak:
 - B.O.: Bulletin officiel de la jeunesse de l'éducation nationale et de la recherche
 - BOE: Boletín Oficial del Estado
 - B.O.N: Nafarroako Foru Komunitateko Aldizkari Ofiziala
 - BONE: Nafarroako Aldizkari Ofiziala
 - CNDP-Informations officiels
 - EHAA: Euskal Herriko Agintzaritzaren Aldizkaria
 - Europako Aldizkari Ofizialak
 - Hegoalderako hezkuntza-legeria (orokorrean)
 - Euskal Autonomi Erkidegoko lege-markoa (1978tik hona)
- Ikas-materialaren onespenera buruzko arautegia:
 - Euskal Autonomia Erkidegokoa
 - Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailaren EIMA IV programa
 - Ikas-materialaren onspenez eta erabileraz zenbait artikulua on-line
- Legeriari buruzko hainbat aipamen bibliografiko espezifiko.

3) *Estekak* izeneko orria: Atal honetan sarbide zuzena eskaintzen dugu testuliburugintzaz aritzen diren munduko ikergune nagusietara, hala nola:

- Bibliothèque de l'Université Laval (Les manuels scolaires québécois) (Kanada).
- Centro de Investigación MANES (España).
- DidaktikDesign (Stockholm).
- George Eckert Institut for International Textbook Research (Germany).
- IARTEM (The International Association for Research on Textbook and Educational Media) (Norvegia).
- Le Programme EMMANUELLE (Frantzia).
- The Center for Pedagogical Texts and Learning Processes at Vestfold College (Norvegia).
- LiteraciaS (Práticas. Teorias. Ícones) (Portugal).
- (VTIC - Vadovelius tyrimo ir informacijos centras) (Textbook Research and Information Centre) (Lituania).
- South-East Europe Textbook Network (Transregional Projects: Clio in the Balkans).
- TREAT (Teaching Resources and Textbook Research Unit) at the University of Sidney (Australia).
- UNESCO Newsletter

4) *Bibliografia* izeneko orria: Atal honetan hiru azpisail bereizten ditugu. Batetik, gure hiru ikerguneren gaineko bibliografia zehatza azaltzen dugu alfabetikoki sailkatuta. Bestetik, eskola-baliabideaz soilik osatutako bibliografia dugu, non toki aproposa dute testuliburuaz aurkitu ditugun zenbait lotura. Hirugarrenez, hezkuntza ikerkuntzarako zenbait baliabide aurkezten ditugu. Honetan INGUMA eta CINDOC guneek toki berezia dute eta zenbait liburutegi katalogo aurkezten ditugu: Basque Studies Library (University of Nevada, Reno Libraries), CIRBIC (CSIC-en liburutegietako katalogoa), LIBDEX (The library index to 18,000 libraries), Libweb (Berkeley Digital Library Sunsite. Library Servers via WWW), Mondragon Unibertsitatea (Biblioteka), REBIUN (Red de Bibliotecas Universitarias), The library of Congress (USSA), UD/DU (UD Web Deustoko Unibertsitateko liburutegia), UEU (Udako Euskal Unibertsitateko katalogoa), UN/NA (Nafarroako Unibertsitateko liburutegia), UPNA/NUP (Nafarroako Unibertsitate Publikoko liburutegia), UPPA (Université de Pau et des Pays de l'Adourreko liburutegia), UPV-EHU (Euskal Herriko Unibertsitateko liburutegia). Web orri berean bibliografiaz zenbait data-baseen lotura aurkezten dugu: (The International ISBN Agency, Agencia Española del ISBN, Bizkaiko Foru Liburutegia, EUSKALDOK (Euskal Dokumentazio Zentrua, Aurkinet), Euskomedia (Euskal Kulturaren Informazio Sistema), Eusko Bibliographia, Information Resources for Basques Studies, IRARGI (Euskadiko Ondare Dokumentalaren Zentroa), JAKIN (XX. mendeko euskal liburuen katalogoa), Sancho El Sabio Fundazioa (Euskal kulturaren dokumentazio zentrua), Ulrich's International Periodicals Directory. Azkenik, "Data-baseak" izeneko atal orokorrean ikerlarien esku jartzen dugu sarean hezkuntzaz eta liburugintzaz kontsultagarri dauden zenbait data-base, eta hezkuntza-aldizkarietara jotzeko aukera eskaintzen dugu. Beraz, Bibliografia atalean honako sailkapena begiztatzen da web orrira sartuz gero:

- Gure ikerguneren gainekoa
- Eskola-baliabideaz soilik
 - Bibliographie internationale de recherche sur l'histoire des manuels scolaires
 - Bibliografia MANES
 - Bottin des chercheurs/chercheuses
 - Data-base of School Textbooks, c, 1860-1920 (The homeroom. British Columbia's history of education web site)
 - Canadian Textbooks
 - Paradigm (Journal of the Textbook Colloquium)
 - Publicaties Afdeling Historische Pedagogiek 2000
 - Pictura Paedagogica Online
 - Recent Studies of 18th-Century Book Culture, 1988-2003
 - Recent Studies of Illustrations and Prints, including Cartography, 1988-2002
 - Répertoire des auteurs de manuels scolaires et de livres de vulgarisation historique de langue française de 1660 à 1960
 - The Bibliographical Society
 - Visual Literacy Bibliography - V. Education / Teaching / Learning
- Hezkuntza ikerkuntzarako baliabideak

- INGUMA - Euskal Komunitate Zientifiokoaren Datu-basea
- CINDOC (Centro de Información y Documentación Científica)
- Hezkuntza data-baseak
- Doktore-tesien datu-basea
- Liburutegiak eta dokumentu-iturriak
- Beste hezkuntza-baliabide Interneten
- Hezkuntza-aldizkariak Interneten
- Hezkuntza ikerketarako software

Azken erreferentzia horri buruz, -Hezkuntza ikerketarako software- esan nahi dugu eduki azterketari arreta berezia jartzen dioten ikerlariei zenbait programa informatikotan sartzeko aukera zuzena eskaintzen diegula lotura horren bidez. Honako hauetara jotzeko aukera dute, hain zuzen:

- ACCESS
- AQUAD 5
- ATLAS.ti
- Análisis cualitativo de datos textuales con ATLAS/ti
- Comentarios sobre un programa informático para la investigación cualitativa
- Nuevas herramientas para el procesamiento de datos cualitativos
- Recursos para la Investigación Educativa
- Ressources Atlas-ti / Glossaire Atlas-ti
- Using Atlas-ti to explore qualitative data
- Cómo analizar cuantitativamente datos cualitativos
- CAQDAS (Computer Assisted Qualitative Data Analysis Software)
- Content analysis software
- Code-A-Text
- Ethnograph v5.0
- Excell
- Herramientas de análisis textual (WordSmith Tools, Concordance, MonoConc Pro, Collocate, ParaConc, Concorcer Pro, Textword.com, Word List maker, UltraFind)
- HyperRESEARCH
- INTEXT (Text Analysis Software)
- Kwalitan v4.0
- MAXqda
- NUD*IST 6 (Non Numerical Unstructured Data Indexing Searching and Theorizing)
- NUD*IST Vivo 2
- NVIVO
- NUD*IST VIVO: Programa informático para el análisis de datos en investigaciones cualitativas.
- NVivo, N6, XSight products comparison table
- Programas de análisis cualitativo para la investigación en espacios virtuales de formación
- PROTAN (PROTOcol Analyzer)

- QED (Qualitative Enhanced Data-analysis)
- QSR International (Qualitative Analysis Software)
- SATO-4 (Système d'Analyse de Texte par Ordinateur)
- SciencePlus (Alphabetically or by category software catalog)
- SPAD
- SPSS
- Sphinx Lexica
- Systat
- TACT (Text Analysis Computing Tools)
- Text Analysis Info Page (Classification of Text Analysis Software)
- TextAnalyst
- TEXTPACK
- TextQuest (Software for text analysis)
- TextSmart
- The Qualitative Report (Qualitative Research Web Sites)
- TROPES
- VBPro (Programs for Content Analysis)
- WinMAX
- WordStat v4.0 (Content Analysis & Text-Mining Module)
- XLSTAT
- XSight
- Software webs

5) *Ziberdokumentuak* izeneko orria: Sareko aurkikuntzak eguneratzen dugun neurrian ehun eta gehiago lotura eskaintzen dugu Internetetik bildutako zenbait jatorrizko dokumentuetara sarbide emanez. Bilaketa lana errazteko dokumentuak eurak izenburuaren arabera alfabetikoki zerrendatu ditugu. Lan hauek indibidualak zein kolektibizatuak Kongresutan, Mintegitan, edo talde lanetan... materiala oso aproposak iruditzen zaizkigu gai baten inguruan lehen hurbilketa zedarrizteko. Pantailatik zuzenean irakurtzeak zein paperean inprimatzeak informazioa berehala eskuratzeko aukera ematen dute, modu merke, eroso eta arinean. Helburua da idazkietara eta bibliografiara lehen hurbilketa lortzea, gerorako utziz sakoneko gogoeta eta informazioa beste iturri batzuekin kontrastatu beharra.

6) *Gure lanak* izeneko: Guk -bakarka zein taldeka- ekoiztutako berrogei inguru lanen erreferentzia zuzena ematen dugu atal honetan, kasu batzutan dokumentuari sarbidea eskainiz, bestetan aurkibideari edo liburuaren azalpenari. Aspaldian abiatutako ikerketa proiektuaren emaitzak dira atal honetan aurkezten ditugunak, diziplinartekotasuna eta talde lanaren dinamikak eraikitako prozesuaren fruituak, alegia. Kontsultagarri dagoen lanen ibilbide kronologikoak begi bistan jartzen du orain hamar urte Euskal Herriko testuliburuetakoa edukien azterketarako zabaldu genuen iker lerroaren izaera. Lan horien ikerguneak lotuta daude euskara eta euskal kulturarekin batetik, zientzia, teknologia eta lanbideak bestetik eta, lurraldea eta historiarekin hirugarrenetik. Esparru hauekin lotuta agertzen diren aspektuak eta argitaletxe bakoitzaren jokabidea zein den euskal kultura ezaugarritzeko orduan, aldagai guztiak berdin tratatzen dituen edo, oro har, sinkronikoki zein diakronikoki izan dituen gora beherak agertzea da gure lanen mamia.

Amaitzeko, orain arte esandako guztiaren osagarri gisa, gogoeta batzuk argira eman nahi ditugu curriculuma eta testuliburua uztartzen duen edukien azterketarako ikerketa lerroaz:

1) Gure tesiak eta ondorengo argitalpenak kokatzen ditugu, ikerketa-lerro konplexu baten barruan, EHUko Hezkuntzaren Teoria eta Eskola Antolakuntzako Sail desberdinetako Irakasle-Eskolako irakasle batzuen artean burutu dugunean, eta talde-lan horri esker irmotasunez heldu diogu ikerketa-proiektu mardul honek eskatzen duen sakontasunari. Testuliburuaren hustuketarako prozedura kuantitatibo eta kualitatiboa erabiliz, gure eskoletako testuliburuaren edukia eta egoera deskribatu nahi izan dugu, deskripzioaren esanahiari azalpen epistemologikoa ere emanez. Zentzu honetan, oharraztekoa da, diziplinartekotasunaren ikuspegitik arituz burututako lankidetzari esker sortu dugun hustuketa-tresnari osotasuna eta orobatasuna ematen saiatu garen moduan, ikerketa-lerroaren esparru teorikoari batasuna ematen saiatu gara. Gutariko bakoitzak bere ekarpenetik, bere nortasunetik eta bere lanetik ikerketaren lerro nagusia espezifikotasunez jantzi eta hornitu duelakoan gaude gu, tesi-lan bakoitzari ekarpen handiagoa emanez.

2) Azpimarratu nahi dugu, bereziki, gure lana Euskal Herritik bertatik abiatuta burutu dugula, ekarpenak Euskal Herriari begira eta euskaraz eginez, baita, ikerketa proiektua euskaraz sortu, garatu eta sozializatu izana, hala ikerketa-etzabaidetan, iker-materialetan, iker-tresnerian nola tesien azken idazketan. Euskal Herriko irakasleriari edo gure irakasleen prestakuntzan diharduten eskoletakoei zuzentzen diegu, testuliburuaren ikerketa sinkroniko eta diakroniko honek agerian utzi dituen euskal irakaskuntzako hainbat giltzarri -ahaztu ezinezkoak direnak, bestalde- haien esku uztea guztiz garrantzitsua dela uste baitugu.

3) Azkenik, ezagutza sozialki sortzen dela onartzen dugulako, egunero sortzen dena gizarteratzeko gogoz, 2003an Araka ikertaldea sortu genuen eta web gunean ikertaldearen helburuez gain, arlo honetan etengabe egiten diren berrikuntzak argitaratzen ditugu, ikerketa ildo gizarteratzeko eta baita arloan sakondu nahi duenari hainbat baliabide eskainiz. Gainera, gure gune honetan testuliburua ikergaia den guneekin loturak agertzen dira eta curriculuma zein testuliburuaren gaineko informazioa ematen dugu, edonork kontsultatzeko moduan.

4) Testuliburuak –zein baliabide didaktikoak oro har– arakutzen eta emaitzak argitaratzen jarraitzeko ustea dugu, ikerketa prozesu zabal eta luzearen fruituak gizarteratu nahian. Horrez gainera, ikasmateriala sortzeko hainbat proiektutan dihardugu, batzuk argitaratuta daude dagoeneko, beste batzuk, ordea, bidean dira. Gure lanaren berri, bestalde, hitzaldi, liburu zein artikulua bidez ematen ari gara etengabe.

Etorkizunari bizipozez begira geniezaioke, bai gure lanen harira ikerlari-gai berriak etorri direlako –2004-05 ikasturtean EHUko doktorego ikastaroetan testuliburugintzaz ikerketa lerroa zabaldu dugunetik–, baita tesiak gure taldean abian jartzera datozelako.

ERREFERENTZIAK

- Bilbao Bilbao, B. (2002a). Kultura erreferenteak oinarrizko hezkuntza curriculumean. *Hik Hasi, Euskal Heziketarako Aldizkaria*, 72, 8-17.
- Bilbao Bilbao, B. (2002b). XX. mendeko testuliburuetakoko pertsona ezagunak. Bizkaiko kasua. *Euskalingua*, 1, 73-79. (On-line + CD-ROM).
- Bilbao Bilbao, B. (2002c). *Kultura erreferenteak Oinarrizko Hezkuntzako Curriculumean*. Doktore-tesia. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- Bilbao Bilbao, B. (2003a). Euskara XX. mendeko testuliburuaren arabera. *Euskalingua*, 3, 106-117. (On-line + CD-ROM).
- Bilbao Bilbao, B. (2003b). *Curriculuma eta kultura Euskal Herrian*. Donostia: Utriusque Vasconiae.
- Bilbao Bilbao, B. (2004a). Euskara: ikonografia bidezko ibilbidearen kronika. *Euskalingua*, 4, 252-257. (On-line + CD-ROM).
- Bilbao Bilbao, B.; Ezkurdia Arteaga, G.; Perez Urraza, K. (2001). Mendebaldea Testuliburuetan. In Askoren Artean: *Euskalkiak eta Hezkuntza*, (179-200 orr). Bilbo: Mendebaldea Kultur Alkartea.
- Bilbao Bilbao, B.; Ezkurdia Arteaga, G.; Perez Urraza, K. (2003). Euskal testu liburugintza XXI. mendearen atarian. *Hik Hasi*, 81, 8-15.
- Bilbao Bilbao, B.; Ezkurdia Arteaga, G.; Perez Urraza, K. (2004). *Euskal Curriculuma ala Euskal Dimentsioa Curriculumean?*. Donostia: Utriusque Vasconiae.
- Bilbao Bilbao, B.; Ezkurdia Arteaga, G.; Perez Urraza, K. (2005). Basque textbooks during the 20th century: the content and the context. *Euskalingua*, 6, 121-125. (On-line + CD-ROM).
- Bilbao, Begoña; Perez, Karmele; Ezkurdia, Gurutze (2005). Testuliburuaren oskoletik muinera. *erabili.com*, Azpeitiako Euskara Patronatua, (<http://www.erabili.com>), 2005-9-29.
- Ezkurdia Arteaga, G. (2004a). *Identitatea eta Ingurunea Curriculumean*. Doktore-tesia. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- Ezkurdia Arteaga, G. (2004b). *Curriculuma eta ingurunea Euskal Herrian*. Donostia: Utriusque Vasconiae.
- Ezkurdia Arteaga, G. (2005). Nor gara gu? Zer gara gu? Testu liburuek diotena. *Hik Hasi*, 94, 8-15.
- Ezkurdia Arteaga, G.; Perez Urraza, K., Bilbao Bilbao, B. (2005). Umeak ikonografian: testuliburuaren garapena XX. mendean. In Dávila, P.; Naya, L. M. (coordinadores): *La infancia en la historia: espacios y representaciones*. Tomo II, (XIII Coloquio de Historia de la Educación) (215-225 orr.). Donostia: Espacio Universitario Erein.

- Perez Urraza, K. (2003a). *Zientzia, teknologia eta lanbideen agerpena Euskal Herriko testuliburuetan*. Doktore-tesia. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- Perez Urraza, K. (2003b): Lana eta garapen teknologikoa Xabierto eskola-liburuan. *Euskalingua*, 2, 162-170. (On-line + CD-ROM).
- Perez Urraza, K. (2003c). Zientzia, teknologia eta lanbideak Euskal Herriko testu liburuetan. *Hik Hasi*, 78, 8-17.
- Perez Urraza, K. (2004a). Xabierto-ren jarraikako testuliburuak euskal irakaskuntzaren garapenean. *Euskalingua*, 4, 234-245. (On-line + CD-ROM).
- Perez Urraza, K. (2004b). *Curriculum eta testuliburuak Euskal Herrian*. Donostia: Utriusque Vasconiae.
- Perez Urraza, K. (2005). Xabierto eta Sabin, eskola liburuetako ikasle eredugarri. *Euskalingua*, 6, 105-115. (On-line + CD-ROM).
- Perez Urraza, K.; Ezkurdia Arteaga, G.; Bilbao Bilbao, B. (2004). Contents of the Curriculum on the identity creation: the analysis of textbooks. XXIst CESE Conference "Multiple Identities, Education and Citizenships. The World in Europe; Europe in the World", Danmarks Paedagogiske Universitet, Copenhagen.